

PORTUZARRA (Portusarrá)



XX. mende hasiera arte portu bakarra zeukan Getxok. Portu Zaharra deitzen diogun ingurua lehen Algorta omen zen, Algortako portua edo besterik gabe Portua deitzen zitzaion. Auzoari Etxetxu ere deitu izan zaio. Arriluze ondoan portu berria eraiki zutenean, leku biak bereizi behar izan ziren eta Portu Zaharra deitzen hasi zitzaion lehengo portuari.

Portua beti izan da txikia, ez baitzen inoiz zama-lekua izan. Gainera, ez dauka kalaturik, hondarra zein haitzak oso nabariak dira eta ipar-mendebaldera irekia dago. Beraz, portu honetako txalupak bi lanetarako erabiltzen ziren; arrantzarako batzuk eta itsasadarrean sartzen ziren itsasontzien bidea errazteko besteak. XIX. mendean Portu Zaharretik txalupa getxoztarrak bendejan eta erosten joaten ziren Portugaleteko merkatura.





Bi argazki hauetan ikusten duzunez, betetze-lanak egin baino lehen portuaren itxura basatiagoa zen eta ez zeukan erasoen kontrako defentsarik.

Errege Bidea

Garai batean parrokia bakarra zegoen Getxon, Andra Maria, eta bertara elizkizun nagusietara auzo guztietakoak joaten ziren. Portutik Andra Maria elizarainoko bideari, Errege Bidea edo "Camino Real" esaten zioten. Gaur egun San Nikolas kalea bezala ezagutzen dugu.

San Nikolas

Orain etxea besterik ez da, baina garai batean basiliza eta, geroago, parrokia izan zen. Biztanleria handitzean txiki geratu zen eta gorago dagoen egungo eliza eraiki zuten.



Argazki honetan ikus daiteke elizaren antzinako itxura mantentzen dela egitura batzuetan.

Eliza honek hainbat funtzio izan ditu; Itsas Kofradiak eskola nautikorako erabili zuen, marinelen eskola ere izan zen eta kartzela-funtzioak bete izan zituen. Marinelen eskola doakoa zen herriko semeentzat; garai hartan emakumeek ez zuten ikasteko aukerarik.

Etxetxu

Hitz honek bi zati ditu, etxe eta -txu atzizkia.

Beheko alderdia publikoa da eta jende asko biltzen zen bertan: eguraldi txarrarekin aparailuak prestatzeko, belak josteko eta Andra Mariko baserritarrek ekartzen zuten bendeja saltzeko. Arrantzaleen kofradia eta lemanak ere bertan biltzen ziren.



Portua asko hazi zenean, udalaren eta kofradiaren bilerak San Nikolas basilizan zein Etxetxun egiten ziren.

Itsasadarraren bokalean Getxoko eta Portugaleteko herrien parean sortzen ziren hareatzek eragindako arazoen ondorioz, beharrezkoa zen itsasontzian praktikoa edo portu-pilotua egotea Bilboko portuan sartzeko. Beraz, lemanak itsasadarrean sartzen ziren itsasontziei bidea errazteko. Portuaren posizioa arrantzarako txarra zenez, Getxoko gizon asko leman egin ziren. Gaur egun lan hori portuko pilotuek (praktikoek) egiten dute.

Erriberamuna




Erribera hitzak itsasertza adierazten du. Erribera kaleko amaieran zegoen muinoari deitzen zioten.

Kantauri itsasoan, kosta guztietan bezala, itsasoa zelatatzea oso garrantzitsua izan da beti. Horregatik, Erriberamuna petrila talaia gisa erabiltzen zen, oso leku ona zelako itsasoa eta itsasadarra ikusteko; zein itsasontzi zetorren ikusteko, bai komertziorako, bai defentsarako.

Anbekokalle

Auzo-eta etxe-izena izan da. Hitzaren osagaiak argiak dira: "han beheko kale". Garai batean "kalle" hitzak auzo esanahia ere bazuen.

Asuarka



Portu Zaharreko eskaileraren beheko aldean dago. Izenaren osagaiak ez daude argi, baina baliteke artzu (harri eta -zu) eta arka izatea.

ARIKETAK:

1. Gaur ezagutzen dugun Portu Zaharrari nola deitzen zioten lehen?
2. Portuan zertan lan egiten zuten? Zergatik?
3. Non ikus dezakegu San Nikolas basiliza izan zela? Zer egituretan? Begiratu ondo gaur egungo etxearen argazkia.
4. Zeintzuk izan dira San Nikolas basilizak historian bete izan dituen funtzioak?
5. Eta Etxetxuk?
6. Zein zen lemanen lana?
7. Nondik dator Erriberamuna hitza? Saiatu zaitetz hitz horren osagaiak aztertzen.

USATEGI



Jeneratxu

Gaur egun Usategi aldatsaren azpiko aldean dagoen parkeari deitzen zaio, baina bere sasoian ortuak izan ziren. Portuko familiek lantzen zituzten baina ez ziren eurenak, eta alogeraz Genara izeneko andre bat arduratzen zen. Kasu honetan -txu, atzizkia ez da txikigarria, adierazkorra da, gertutasuna eta maitasuna adierazten du. Hortik datorkio parkeari izena.

Leku honetatik portuko familia batzuek harea ateratzen zuten zurezko zoruak eta eskailerak hareaz igurzteko ("arenatu").



Algortako hareharriak horiak dira eta 40 milioi urte dituzte. Horrelako batzuk Unbe mendian eta Oiz mendian ere ikus daitezke.

Askana

Askana hitzaren osagaiak hauek dira: atx (haitza) eta gana (gain). Usategirako aldapatik gora eginda ezkerretara dauden eraikin zuriak dauden lekuan egon zen Askana izeneko etxea.

Askanpe

Askanpe, aldiz, Askana hitza eta -pe (behe) atzizkiaz osatuta dago. Hondartza edo kalatxo hau aspaldi desagertu zen, Portu Zaharreko betetze-lanak egin zirenean.

Usategi

Usategi hitzaren osagaiak bi dira: uso, txori-izena eta -tegi atzizkia, "etxe" esanahia duena.

Usategi izena Usategi etxearen izenetik dator. Gaur egun ere kale baten izena da, Usategiko aldatsa.

Leku honek hainbat izen izan ditu: Banderas, San Ignazio eta Gazteluko landa. Hemendik banderen bitartez Bilbo gainean dagoen Elorriaga mendian zegoen gotorlekuari mezuak bidaltzen zitzaizkion eta horregatik Banderas deitu izan zitzaion. 1759an bateria konpondu eta San Ignazio izena eman zioten.

San Nikolas eguneko erromeriak egiteko erabiltzen zen leku hau, gerrak zirela eta, gotorleku bat jarri zuten arte. Itsasadarrak beste ertzean daudenekin defentsa-sistema osatzen du.



Orain parkea da eta beheko partetik paseatuz gero, egitura berezia dela nabaritzen da, forte bat ematen du.

Gazteluzarra

Getxon lau gotorleku egon dira. Zaharrena, izenak berak dioen bezala, Gazteluzarrearantz zegoen eta hau izan da gaztelu izena gorde duen bakarra. Bigarrena Begoña lurmuturrean egon zen eta kai berria eraikitzean desagertu zen. Hirugarrena Galean dago eta laugarrena Aiboako tontorrean eraiki zuten.

Gazteluzarra izenak argi erakusten digu euskaldunok gaztelaniaz "fuerte" esateko "gaztelu" erabiltzen genuela, eta ez azken urteotan zabaldu den gotorleku hitza.

Abasota

Harkaitz honen gaineko aldean Usategi parkea dago. Amildegia goiko aldean zutik jarraitzen du kontrabandoa zaintzen zuten karabineroen babeslekuak.

Peña del Piloto

Abasotako azken harkaitza da, marea goian dagoenean irla bat bezala ikusten dena.

Jatorrizko harkaitzaren gainean porlanezko zati handi bat jarri omen zuten pilotuen lana errazteko, horregatik jarri zioten izen hori. Beste kondaira bat dago, ito egin zen pilotuarena, baina ez omen da benetakoa.

Kantarepe

Kala-eta kale-izena da. Bizkaian arrunta den kantara 'harrobi' hitza, -e-ren eraginez kantare bihurtuta, eta behe-ren aldaera den -pe dugu.



Goiko aldean, egungo pasealekua baino beherago ikuztegi bat dago, aurrietan. Beherago, sasi artean, harrigarria bada ere, etxetxo txiki bat egon zen.

ARIKETAK:

1. Nondik dator Jeneratxu izena?
2. Bilatu Oiz eta Unbe mendietako hareharrien datu edota argazkiak. Horretarako Internet erabili dezakezu edo bertara joan eta argazki batzuk atera.
3. Azaldu Askana eta Askanpe hitzen osagaiak.
4. Usategi orain parkea da, baina lehen itsasadarreko defentsa-sistemaren zatia zen. Zeintzuk dira jaso dituen izenak eta zergatik?
5. "Fuerte" esateko zer hitz erabiltzen duzu? Eta lehen zein erabiltzen zen? Eman adibide bat.
6. "Goiko aldean, egungo pasealekua baino beherago ikuztegi bat dago, aurrietan." Zer da ikuztegia? Horretarako eman ikusi eta ikuzi hitzen definizioak. Hiztegian bilatu.

HONDARTZA ETA BERE INGURUAK



Arrigunaga

Hitz honek hiru osagai ditu: harri, gune (lekua) eta -aga atzizkia.

Arrigunaga izena Arrune etxe desagertuaren izenetik dator. Baserri-izena ahoz aho eta hondartzarenak, ostera, maila ofizialagoa izan du. Hondartzetara joatea modan jarri zenean, herri-agintariek ofiziala zen izen osoa hasi ziren erabiltzen eta hori bihurtu zen egunerokoa.



Hondartzak bi izen dauzka; Arrigunaga, ezaguna, eta hain hedaturik ez dagoen Areatxu.

Gaur egun Arrigunagan ikus daitezkeen aurriak Getxo babesteko egindako parapetoarenak dira; etsaien bidea oztopatzeko eta Printzearen Gaztelua eta Usategiko Gotorlekuei defentsan laguntzeko egin zen. Baina ez da izan oso puntu garrantzitsua, leku txarrean kokatuta baitzegoen. Maiz erortzen zen, eta azkenean, harriz egin behar izan zuten.



Gaur egun irristatzeko erabiltzen da.

Talaieta

Aurreko ibilbidean ikusi dugunez, "talaia" hitz arrunta da. Talaieta hitzak -eta lekua edota ugaritasuna adierazten duen atzikia du.

1640an Frantziarekiko gerran, sua erabiltzen zuten zaintzaileek zenbat itsasontzi zetozen abisatzeko. Baina XVIII. mendean Talaietako zaintzaileen ordez, banderen bidezko komunikazio-sistema berria jarri zuten Usategiko parkean.

Aixerrota (Axerrota)

Aixerrota etimologikoki "haize-errota" da euskaraz. Izen generikoa da, baina izen propio moduan geratu zen.

Hemengo ohiko errotak ibaikoak dira. Gure lurra oso euritsua denez, errekek aprobetxatu ohi ditugu garia eta artoa ehotzeko. Gure eskualdean asko egon dira, ibai txikia izanik ere.

XVIII. mendean lehorte larria egon zen eta horregatik Bizkaian haize-errota asko egin zituzten. Getxon bi eraiki ziren, eta gaur egun Aixerrotak bakarrik dirau zutik.



Edmund Shee irlandarrak egin zuen errota hau. Ez zen oso arrakastatsua izan, bizi-baldintzak aldatu eta, lehorte garaia amaitutakoan ez zen gehiago erabili. Geroago, etxe bihurtu zuten eta gaur egun jabetxea da.



Bizkaiko kostalde osoan bezala, paraje honetan ipar-ekialdeko haize gogorra ohi dabil eta horrelako haize gogorra behar zen Aixerrotaren hegala martxan jartzeko.

Dorre motakoa da eta goiko partea mugitu egiten zen haizetan jartzeko. Lehenengo solairuan errotarria zegoen eta goiko aldea makina batzuk sartzeko erabiltzen zen.

Errotaren barruko irudia

Funtzionatzen egon zen urte urrietan, batez ere artoa eta pentsuak ehotzen ziren bertan, orduko elikatze-premiak asetzeko. Bi irin mota egiten zituen: mehea ("artourune") taloa egiteko, eta arrunta ("artobirrine"), ganaduaren eta baserriko hegaztien bazkarako.

ARIKETAK:

1. Zeintzuk dira Arrigunaga hitzaren osagaiak?
2. Arrigunaga hondartza izendatzeko beste izenik ezagutzen duzu?
3. Talaieta hitzaren osagaiak adierazi.
4. Noiz eta zergatik hasi ziren haize-errotak eraikitzen?
5. ENERGIA. Gure inguruan energia haizearen eta uraren bidez lortzen zen, haize-errota eta batez ere ur-erroten bidez. Baina gaur egun erabiltzen dugun energia nondik dator? Bilatu energia berriztagarri eta ez-berriztagarriei buruzko informazioa eta bete hurrengo koadroa. Energia-mota bakoitzari buruzko informazioa ere eman dezakezu.

ENERGIA ITURRIAK	
Ez-berriztagarriak	Berriztagarriak